

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Lehen esan bezala, Euskal Herri mailan ez dago horrelako elkarterik, hori dela eta gure muga Euskal Herria izango da. Antolatuko dugun ekintza bi segmentu desberdinetara zuzenduko da. Alde batetik, minbizia dutenen pertsonak eta euren familiak, eta bestetik gure ekintzan parte hartuko duen edonor.

Jakin badakigu Euskal Herrian txirrinduan ibiltzeko ohitura handia dagoela, profesional gisa dabiltzan kirolari asko baitauzkagu. Horiek horrela, hauek gure bezero potentzialak dira eta lasterketan parte hartzeko ahalmena izango dutela ondorioztatu dezakegu. Honetaz gain, kontuan hartu behar dugu txirrindularitzan adituak ez direnek ere lasterketan parte hartu dezaketela.

Bestalde, ez dizkiogu atea ixten Euskal Herritik kanpo bizi diren bezeroei. Izan ere, zenbat eta publiko zabalagoa izan oraindik eta aberasgarriagoa dela iruditzen zaigu. Elkarrean antolatutako ekintzen parte izan nahi duten pertsona guztientzat irekita dago, euren kokapena alde batera utziz.

Horregatik guztiagatik, gure bezeroen ezaugarri nagusiak gizartean parte hartze aktiboa duten pertsonak direla esan genezake. Besterik gabe, laguntzeko prest dauden kideak, minbiziaren aurkako kontzientzia bultzatu nahi dutenak eta doaitzan dirua emango dutenak.